

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Zein dira behar ditugun elementu garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

1. Arropa pertsonalizatua eta egokitua: Desgaitasuna duten pertsonentzako edo arropa pertsonalizatua bilatzen dutenentzat sortutako marka da. Produktuak bezeroen beharrak eta lehentasunak kontuan hartuta diseinatzeko eta fabrikatzeko dira, haien neurrira egokituz.

2. Web-a ongi egituratua eta interaktiboa: Bezeroek gure web orrian sartzean, estilo anitzeko diseinu aukerak izango dituzte. Haien gustuak eta beharretara egokitutako aukera pertsonalizatuak egiteko modua eskainiko da.

3. Neurrien hartzea: Bezeroek beharrezko neurriak sartzeko aukera izango dute. Hala ere, haien neurrien zehaztasuna bermatzeko, argibide eta gomendioak emango zaizkie. Bezeroek haien etxera doan neurtzaile profesional baten zerbitzua eskatu ahal izango dute, neurrien hartze prozesua modu egokian egiteko.

4. Neurtzaile profesionalen zerbitzua: Ezinbestekoa da bezeroentzako arropa pertsonalizatzeko, arropa egokitu eta egokia bermatuz. Zerbitzu honek kalitate eta zehaztasun handiko arropa eskaintzea ahalbidetzen du.